A4098

# HITZALDI - EZTABAIDAK

## *CHARLAS -DEBATE*




## Donostian Egiako Kultur Etxean arratsaldeko 7'30tan

**Martxoak 27 Asteartea:**

**ABIADURA HANDIKO TRENA: EZTABAIDARAKO AUKERA**

*TREN DE ALTA VELOCIDAD: LA OPORTUNIDAD DEL DEBATE*

Iñaki Antiguedad (EHUko ikerlaria / investigador de la UPV) Enrike Gisasola (EHNE) Teresa Jauregizar (Gezia Gladys del Estal Fundazioa) AHTaren Aurkako Asanblada / Asamblea Contra el TAV

**Martxoak 29 Osteguna:**

**GARRAIOAREN ERAGIN EKOLOGIKO ETA SOZIALAK**

*IMPACTOS ECOLOGICOS Y SOCIALES DEL TRANSPORTE*

Alfonso Sanz (Geografo, experto en transportes) Luis (AHTaren Aurkako Asanblada)

A.H.T.aren Aurkako Asanblada

**Apirilak 3 Asteartea:**

**ENERGIA POLITIKA DESARROLLISTA EDO EREDU DESZENTRALIZATUAK**

*POLITICA ENERGETICA DESARROLLISTA O MODELOS DESCENTRALIZADOS*

Iñaki Urrestarazu (Abra Kolektiboa) Daniela Erli (ikerlariak)

**Apirilak 5 Osteguna:**

**GLOBALIZAZIOAREN ITZALAK** *LA OTRA CARA DE LA GLOBALIZACION*

Manu Muner (Libertarioa) Aitor Zuberogoitia (Kazetaria) Mariano (Hemen eta Munduan)

Ostirala apirilak 6: "JAIZKIBELGO SUPERPORTUARI EZ!" Diapositiba emanaldia eta MAHAI INFORMATIBOA. Alde Zaharrean 8tatik aurrera

## AZPIEGITURA HANDIEN AURKAKO HITZALDI-EZTABAIDAK DONOSTIAN:

Mundu osoan ezartzen ari den gizarte eta ekonomia eredu desarrollistaren zantzuak geroz eta nabarmenago ageri zaizkigu Euskal Herrian. "Globalizazio Ekonomikoa"ren ildoei jarraiki, gure nortasun kolektiboan ondorio bortitzak eragingo dituzten erabakiak hartzen ari dira, bai azpiegitura eta bai gizarte ereduari dagokionean: Abiadura Handiko trenak, superportuak, autobideak nonnahi, zentral termikoak eta eolikoak, "Baiona-Donostia Eurohiria"... Hain zuzen ere, globalizazioaren antzerkian guztiz txertatutako Euskal Herri horri, neoliberalismoaren proiektua dena, Euskopolia deritzo.

Hori dela eta, erakundeetatik ezartzen ari den gizarte ereduari buruz eta horri aurre egiteko ditugun borroka eta erresistentzia bide posibleei buruz eztabaidatzeko, ekintza informatibo batzuk antolatu ditu Donostiako AHTaren Aurkako Asanbladak (egitaraua ikus)

Bestalde, Euskal Herriko hainbat mugimendu eta erakunderen artean berriki eratu den "AHT Gelditu! Elkarlana"k egingo duen hurrengo batzarrean parte hartzera dei egiten diegu AHTaren inguruan kezka duten Donostialdeko pertsona eta taldeei. Bilera hori martxoaren 31an larunbatarekin egingo da Anoetako udaletxcean, goizeko 10etatik aurrera.

Gauzak mugitzen ari dira. AHTa eta berarekin datorren gizartearen inguruko kezkak bizirik dirau. Hortaz, jende guztia eztabaida eta mobilizazio ekintza horietan parte hartzera animatu nahi dugu.

Azkenik, apirilaren 27tik maiatzaren 1era proiektu txikitzaileen aurka Gaintxurizketan egingo den akanpadaren berri eman nahi dizuegu.


**AHTaren Aurkako Asanblada**
(Bilerak asteazkenero 8tan Intxaurrondoko Gaztetxeko "Kafetas" lokalean)
3243 Postakutxa 20080-Donostia
Tlfnoa: 943-518168


## CHARLAS-DEBATES CONTRA LAS GRANDES INFRAESTRUCTURAS EN DONOSTIA:

El modelo economico y social desarrollista que se está imponiendo por todo el mundo también se deja sentir aqui, en Euskal Herria. Obedeciendo a lo que ha dado en denominarse "Globalización Económica", se están adoptando un cúmulo de decisiones en infraestructuras y configuración para nuestra sociedad que tendrán una enorme incidencia sobre nuestra identidad colectiva: trenes de Alta Velocidad, superpuertos, más autopistas y autovías,centrales térmicas y eólicas, "Eurociudad Baiona-Donostia"... Es lo que se ha dado en llamar Euskopolis, el proyecto del neoliberalismo para la Euskal Herria insertada plenamente en el teatro de la globalización.

Es por ello que desde la Asamblea Contra el TAV de Donostia hemos organizado unas actividades informativas, para tratar de alentar el debate social sobre modelo de sociedad que se está desarrollando desde las instituciones y las posibles formas de lucha y resistencia. (ver programa)

Por otra parte, invitamos a todas las personas y grupos interesados de Donostialdea a participar en la próxima reunión de la coordinación "AHT Gelditu!" formada recientemente entre diferentes movimientos y organizaciones de Euskal Herria en oposición al Tren de Alta Velocidad. Esta reunión tendrá lugar el sabado 31 de marzo, a partir de las 10h de la mañana, en el ayuntamiento de Anoeta.

Algo se mueve. La inquietud por denunciar tanto el TAV como la sociedad que viene con él sigue viva. Animamos pués a todo el mundo a participar en estas actividades de debate y movilización.

Informamos tambien de que una acampada contra las grandes infraestructuras tendrá lugar del 27 de abril al 1 de mayo en Gaintxurizketa.


**Asamblea Contra el TAV**
(renuniones los miercoles a las 8 de la tarde en el local "kafetas" del gaztetxe de Intxaurrondo)
Apdo 3243 20080-Donostia
Tlfno: 943-518168

# LLAMAMIENTO A LOS GRUPOS Y ORGANIZACIONES DE DONOSTIA:

## REUNION EL MIERCOLES 30 DE MAYO PARA PREPARAR LA MANIFESTACION CONTRA EL TAV DEL 16 DE JUNIO EN DONOSTIA

Kaixo.

Organizada por la coordinación AHT GELDITU! ELKARLANA, el próximo 16 de junio se realizará una manifestación contra el Tren de Alta Velocidad en Donostia. Desde esta coordinación de organizaciones sindicales, grupos ecologistas, asamblea contra el TAV, grupos locales de afectad*s, partidos políticos, ayuntamientos, movimientos sociales, etc. hacemos un llamamiento a la movilización para poner freno a este proyecto contestado por el enorme impacto ecológico y la fortísima incidencia que implica en el propio modelo de sociedad.

Con este motivo motivo, nos dirigimos a todos los grupos y organizaciones de Donostia contrarios al TAV para comunicaros la convocatoria de una reunión de cara a coordinar esfuerzos e intercambiar ideas sobre las iniciativas a llevar a cabo en común a nivel local de Donostia para difundir el llamamiento a la manifestación y animar a la gente a participar en esta movilización. Animamos por tanto a todas las personas, colectivos y organizaciones interesadas a participar en esta reunión, con el fin de aunar fuerzas y coordinar el trabajo que podemos llevar a cabo conjuntamente en las próximas semanas en Donostia para impulsar esta movilización. Esta reunión tendrá lugar el miercoles día 30 de mayo, a las 8 de la tarde, en el local "kafetas" del Gaztetxe de Intxaurrondo (en Intxaurrondo zaharra, a lado de la Casa de Cultura Larrotxene).

Es necesaria vuestra participación y os invitamos a proponer ideas sobre las formas de extender el llamamiento a la manifestación tanto en Donostia como en vuestro barrio. Si no podeis acudir a la reunión del día 30 pero estaís dispuest*s a echar una mano (para poner carteles en alguna zona,...), poneros en contacto. En todo caso, os invitamos a difundir de la forma que mejor lo veaís el llamamiento a la manifestación en vuestro entorno.

Junto a este llamamiento os enviamos el comunicacdo de presentación del trabajo en común de "AHT GELDITU! ELKARLANA", la coordinación de movimientos y organizaciones convocantes de la manifestación del 16 de junio.

******************************************

Aprovechamos la ocasión para animar igualmente a todo el mundo a participar en la marcha que se realizará el domingo 10 de junio, desde Astigarraga a las riberas del Urumea, dentro de las actividades que está llevando a cabo la asamblea contra el TAV de Astigarraga-Martutene. Asimismo, indicar que se ha publicado una revista de contrainformación y crítica al plan de infraestructuras promovidas en la comarca de Donostialdea-Oarso/Bidasoa (TAV, Superpuerto de Jaizkibel, "Eurociudad Baiona-Donostia", ...). Esta revista titulada "Erokeria" recoge distintas colaboraciones y opiniones de grupos y personas de la zona preocupadas por los graves impactos que estos proyectos comportan desde el punto de vista de la ecología, la economía y el modelo de sociedad, la identidad y la cultura. La revista puede obtenerse en distintos bares de Donostia y en la librería Bilintx.

Agur eta ikusi arte.

**Asamblea Contra el TAV de Donostia**
**Tlfno: 943-518168**

# "El TAV es un proyecto anti-social, anti-ecológico, despilfarrador de recursos e inapropiado para Euskal Herria"

## Una coordinación de ayuntamientos, partidos, sindicatos y movimientos sociales trabajará contra de la imposición del Tren de Alta Velocidad

Diferentes movimientos y organizaciones de Euskal Herria han formado una coordinación para llevar a cabo un trabajo en común en oposición a la construcción del Tren de Alta Velocidad, tanto el proyecto conocido como la "Y vasca" y su conexión europea a través de Iparralde, como el bautizado como "corredor navarro". Ante la gravedad de la situación actual -tras la aprobación definitiva del Plan Territorial Sectorial de Ferrocarriles de la CAV por parte del Gobierno Vasco y de la Evaluación de Impacto Ambiental del proyecto de construcción por parte del Gobierno español- consideramos necesario articular una unidad de acción por la paralización y retirada de este proyecto. Como primer paso de esta actuación conjunta hemos realizado hoy una concentración frente a Ajuria Enea -sede de la lehendakaritza del Gobierno Vasco- y la delegación en la CAV del gobierno español, para denunciar la implicación de ambos ejecutivos en este proyecto que, de llevarse a cabo, originaría importantes daños a nivel, social, económico y ambiental. Son muchas las razones que soportan la exigencia de paralización del TAV y estamos convencidos de que mucha gente comparte esta demanda. Este acto sirve también de presentación pública de una iniciativa a la que todavía esperamos múltiples adhesiones.

Los ejes para el trabajo en común de AHTa Gelditu! Elkarlana, la coordinación de organizaciones que hoy presentamos se basa en las siguientes líneas:

- **El rechazo total al TAV:** Consideramos el proyecto anti-social, anti-ecológico, despilfarrador de recursos y absolutamente inapropiado para Euskal Herria. Es inasumible por sus impactos físicos, agrarios, sociales, económicos y territoriales. Esos impactos son inaceptables y es imposible su ajuste con "medidas correctoras". Es absurdo el plantear que por ganar unos minutos en los tiempos de viaje entre las capitales se acepten esos impactos desproporcionados. Negamos la utilidad social del TAV, un ferrocarril que luego será privatizado. Se plantea una inversión pública de 3.000 millones de pesetas por kilometro de vía para que luego unas empresas privadas se lleven las ganancias, socializando sólo los efectos negativos. Se destruirá tejido social y económico y se perderá calidad de vida fuera de las capitales y las necesidades energéticas que tiene el proyecto implican contravenir el sentido de numerosos convenios internacionales (Río, Kioto,...) acerca de una actividad economica ambientalmente sustentable.

- **Nuestra más firme denuncia por el procedimiento seguido para elaborar el proyecto:** Se ha impulsado desde una absoluta falta de transparencia informativa y de participación pública. Numerosos colectivos y organizaciones han mostrado su desacuerdo y críticas al proyecto, a través de la estrecha y exigua vía de las alegaciones, en concreto 1.600,

pero todas ellas han sido rechazadas sin la debida justificación. Se obvia una vez más la necesidad de promover la accesibilidad frente a la movilidad, es decir, que la cercanía hace irrelevante la velocidad. Exigimos que se respete el amplio rechazo social al TAV y se reconozca el derecho al veto a nivel local para los municipios que se ven extremamente afectados por este proyecto.

- Detrás de estas líneas de trabajo se vislumbra la necesidad de **cuestionar, al fin, el modelo de transporte, de ordenación del territorio y, en definitiva de sociedad** que se está desarrollando desde las instituciones, a espaldas de las dinámicas sociales en las que trabajamos las organizaciones que participamos en esta iniciativa.

Desde esta amplia y plural coordinación de organizaciones sindicales, grupos ecologistas movimientos sociales, partidos políticos, [illegible] locales de afectados, ayuntamientos, etc. se trabajará en contra de este proyecto anti-social con los siguientes instrumentos:

- **Movilizaciones y actividades informativas:** Impulsaremos una doble dinámica de información y movilizaciones a corto plazo en las zonas y capitales afectadas directamente por el TAV y de trabajo a nivel nacional. Este trabajo se va a intensificar ante la pretensión del gobierno español y el autonómico de dar comienzo a las obras este mismo año.

- **Acciones jurídicas:** Próximamente comunicaremos a los tribunales nuestra intención de interponer recurso para pedir la paralización del proyecto por infracciones legales graves y las irregularidades cometidas en su tramitación.

- **Acción a nivel institucional:** Como primer paso, está ya en marcha un proceso de contacto y coordinación de los Ayuntamientos [illegible] oponen al Tren de Alta Velocidad.

AHTa GELDITU! Elkarlana: Angiozarko Ba[illegible] Anoetako Udala; AHTaren Aurkako Asanblada; Batzarre; BIOLUR-Gipuzkoa; CGT, [illegible]guzki; EB-IU; EH; EHNE; Ekologistak Martxan; Elorrioko Independienteak; Elorrioko Udala; Elorrixa; ESK; Ezkerraldeko Gaztetxeen Koordinadora; Ezkio-Itsasoko Udala; Fundación Gezia Gladys del Estal; Galdakao Bizirik; Haika; Hiru; LAB; Lurra deialdia; Mugarra Bizirik; Plataforma Bizirik Betiko; Zornotza Bizirik; Zutik

**Gasteiz, 15 de marzo de 2.001.**

**~~Más información o declaraciones: 94.631.43.04/902.23.97.51.~~**

# DONOSTIAKO TALDE ETA ERAKUNDEEI
# BILERA-DEIALDIA
# MAIATZAREN 30AN ASTEAZKENAREKIN

## GAIA: EKAINAREN 16AN DONOSTIAN EGINGO DEN AHT-AREN AURKAKO MANIFESTAZIOARI BEGIRA PRESTAKETA LANA LOKAL MAILAN

Kaixo:

AHT GELDITU! ELKARLANAk antolaturik, Abiadura Handiko Trenaren aurkako manifestazioa egingo da Donostian, ekainaren 16an. Erakunde sindikalak, talde ekologistak, AHTaren aurkako asanblada, tokian tokiko kaltetuen taldeak, alderdi politikoak, udalak, gizarte mugimenduak etab. batzen dituen elkarlan honen partetik, Euskal Herri osoko mobilizazio batera deitzen dugu, AHTaren egitasmoaren geldiaratzea eskatzeko, hala ekologia arloan nola gizarte ereduari dagokionean duen eragin bortitza dela eta.

Hori dela eta, Donostian AHTaren aurka dauden talde eta erakunde guztiengana heldu nahi dugu, hain zuzen ere Donostia mailan manifestazioaren deialdia zabaltzeko eta jendea mobilizaizio honetan partehartzera animatzeko egin beharreko lana koordinatzeko eta horren inguruan bestelako ekimen posibleei buruz ideiak trukatzeko. Horregatik, interesa duten perstona, talde eta erakunde guztiak bilera honetan partehartzera animatzen ditugu, ea horrekin lortzen dugun datozen asteetan Donostian lan polita egitea eta AHTaren aurkako erantzunari bultzada ematea. <u>Bilera hori maiatzaren 30an egingo dugu, asteazkenarekin, arratsaldeko 8tan Intxaurrondoko Gaztetxeko "kafetas" lokalean (Intxaurrondo zaharran, Larrotxene Kultur Etxearen ondoan).</u>

Zuen partehartea beharrezkoa da eta Donostian edota zuen auzoan manifestazioaren deialdia zabaltzeko moduei buruz ideiak proposatzeko dei egiten dizuegu. Dena den, maiatzaren 30ko bilerara ezin etorri, baina zer edo zer egiteko prest bazaudete (auzoren batean kartelak jarri edo beste), harremanetan jarri. Beraz, egokien iruditzen zaizuen eran manifestazioaren deialdia zuen inguruan zabaltzeko gonbidapena egiten dizuegu.

Deialdi honekin batera, AHT GELDITU! ELKARLANAren aurkezpen gisako agiria bidaltzen dizuegu. Ekainaren 16ko manifestazioa deitzen duen hainbat talderen arteko ekimenaren lan ildoak azaltzen ditu horrek.

*************************************

Bide batez, ekinaren 10an Astigarragatik Urumeako erriberara egingo den ibilaldian partehartzera animatu nahi dugu jende guztia. Ekimen hori Astigarraga-Martuteneko AHTaren aurkako asanbladak eratu du. Bestetik, proiektu txikitzaileen aurkako informazio eta kritika aldizkari bat kaleratu berri dela jakinaratzen dugu. "Erokeria" aldizkarian, Donostialdea eta Oarso-Bidasoa eskualdean ezarri nahi dituzten azpiegitura erraldoien auzia jorratzen da bereziki (AHTa, Jaizkibelgo Superportua, "Baiona-Donostia Eurohiria" ...). Inguruko herrietako zenbait lagun eta talderen ekarpenak eta iritziak bildu dira aldizkarian, egitasmo horiek ekologia, ekonomia eta gizarte ereduan, identitatea eta kultura arloetan eragingo lituzketen ondorio larriengatik kezka azaltzen dutenak. Aldizkaria Donostiako hainbat tabernatan edota Bilintx liburudendan eskura daiteke.

Besterik gabe, agur eta ikusi arte!

**Donostiako AHTaren Aurkako Asanblada**
**Tlfnoa: 943-518168**

# "AHTa bada proiektu anti-soziala, anti-ekologikoa, baliabide-xahutzailea eta erabat ez-aproposa Euskal Herriarentzat "

## Udal, alderdi, sindikatu eta gizarte mugimenduen elkarlan batek lan egingo du Abiadura Haundiko Trenaren inposaketaren aurka

Euskal Herriko hainbat erakunde eta mugimenduk elkarlan bat osatu dute Abiadura Haundiko Trenaren proiektuak -"euskal Y" deiturikoa, bere Europarekiko lotura Iparraldean zehar eta "nafar korredorea" delakoa- eraikitzearen aurkako lan amankomuna garatzeko. Gaur egungo egoera larria ikusita -Eusko Jaurlaritzak Trenbideen Lurralde Sektoreko Plana onartu ondoren eta Espainiako Gobernuak bere eraikuntza proiektuaren Ingurumena Kalteen Ebaluaketarekin gauza bera egin ondoren- uste dugu behar-beharrezkoa dela ekintza batasun bat eratzea proiektu hori gelditu eta atzera botatzeko. Ekimen bateratu honen lehen urrats moduan, gaur bilkura bat egin dugu Ajuria Enea -Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren egoitza- eta Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzaren aurrean, horrela, aurrera aterako balitz, gizarte, ekonomia eta ingurumen mailan kalte larriak ekarriko lituzkeen proiektu honetan bi exekutiboek daukaten inplikazioa salatu nahi dugularik. Arrazoi asko dago AHTaren geldiara[redacted]orena delakoan gaude. Biikura honek ere balio du oraindik atxikimendu asko jaso behar duen ekimen hau jendearen aurrean aurkezteko.

Gaur aurkezten dugun hainbat taldeen arteko AHTa Gelditu! Elkarlanean amankomunean garatuko dugun lan ildoak hauexek dira:

- **AHTari erabateko ezetza:** Uste dugu proiektu hori erabat anti-soziala, anti-ekologikoa, baliabide-xahutzailea eta Euskal Herriarentzako arras ez-aproposa dela. Onartezina da eragiten dituen kalte fisiko, sozial eta ekonomikoengaitik, baita nekazaritzari eta lurraldearen orekari eragiten dizkienengaitik ere. Kalte horiek jasanezinak dira eta ezinezkoa "neurri zuzentzaileen" bidez konpontzea. Ez du funtsik hiriburuen arteko bidaietan minutu batzuk irabaztearren halako neurri gabeko kalteak onartzea. Ukatzen dugu gero pribatizatuko den AHTaren erabilgarritasun soziala. Planteiatzen ari da trenbide-kilometroko 3.000 miloi pezeta inbertitzea, ondoren entrepresa pribatu batzuek irabazkinak eramateko, bakarrik eragin negatiboak sozializatuz. Suntsituko dira ekonomi eta gizarte sareak eta bizitza-kalitatea galduko da, hiriburuetatiik landa, eta proiektu horrek eskatzen dituen behar energetikoak asetzeak ekarriko luke jarduera ekonomiko sustengarrien aldeko hainbat nazioarteko konbeniori (Río, Kioto,...) muzin egitea.
- [redacted] salaketa larria proiektua egiteko eraman den prozeduragaitik: Egin da inolako informazio gardentasunik gabe eta jendearen parte hartzea oztopatuz. Erakunde eta kolektibo ugarik erakutsi dute euren proiektuarekiko desadostasuna, eta horretarako zeharo antzu eta mugatua izan den alegazioen bidea erabili; 1.600 alegazio aurkeztu dira eta ez da bat ere ez kontuan hartu, inolako arrazoirik eman gabe. Berriro ere ahaztu egiten da hobe dela eskuragarritasuna bultzatzea, mugikortasuna baino, hau da, hurbiltasunak ezabatzen duela

arintasunaren beharra. AHTaren kontrako iritzi sozial sendoari begirunea zor zaiola aldarrikatzen dugu eta galdegiten dugu halako proiektuek larriki kaltetuta geratzen diren udalerrien beto eskubidea onartua izan dadila.

- Lan ildo hauen atzetik argi aurreikusten da **kolokan edo eztabaidagai jarri behar dela** instituzioetatik bultzatzen ari den **garraio eredua, lurralde antolakuntza eta, azken finean, gizarte eredua,** baita prozesu hori ekimen honetan parte hartzen dugun erakundeok lantzen ditugun dinamika sozialetatik erabat aparte garatzen ari delako ere.

Erakunde sindikalak, talde ekologistak, gizarte-mugimenduak, alderdi politikoak, udalak, tokian tokiko kaltetuen taldeak etab. batzen dituen elkarlan anitz eta zabal honen partetik proiektu anti-sozial honetan hurrengo lanabesekin lan egingo da:

- **Mobilizazioak eta ekintza informatiboak:** Dinamika bikoitza bultzatuko dugu, alde batetik informazio prozesua eta mobilizazioak AHTak kalteturiko eskualde eta hiriburuetan eta bestalde nazio mailan. Lan hau areagotuko da hurrengo hilabeteotan, Espainiako gobernuak zein Jaurlaritzak aurten lanak hasteko asmoa baitute.

- **Ekimen juridikoak:** Laister komunikatuko dugu epaitegietan asmoa daukagula helegitea aurkezteko proiektuaren geldiaraztea eskatuz, tramitazioan egin diren irregulartasun eta lege-hauste larriengaitik.

- **Ekimenak instituziotan:** Lehenengo pauso moduan, badago jadanik martxan AHTaren aurka dauden udalerrien arteko koordinazio prozesu bat.

AHTa GELDITU! Elkarlana: Angiozarko Batzarra; Anoetako Udala; AHTaren Aurkako Asanblada; Batzarre; BIOLUR-Gipuzkoa; CGT; Eguzki; EB-IU; EH; EHNE; Ekologistak Martxan; Elorrioko Independienteak; Elorrioko Udala; Elorrixa; ESK; Ezkerraldeko Gaztetxeen Koordinadora; Ezkio-Itsasoko Udala; Fundación Gezia Gladys del Estal; Galdakao Bizirik; Haika; Hiru; LAB; Lurra deialdia; Mugarra Bizirik; Plataforma Bizirik Betiko; Zornotza Bizirik; Zutik

**Gasteiz, 2.001eko martxoak 15a.**
**Informazio gehiago edota adierazpenak: 94.631.43.04/902.23.97.51.**